



ARGAZKI ERAKUSKETA | EXPOSICIÓN FOTOGRÁFICA

Gobierno  
de Navarra  Nafarroako  
Gobernua



United Nations  
Educational, Scientific and  
Cultural Organization

Sipa Press

Eskolara  
bideak  Caminos  
a la escuela

**Titulua I Título**

Eskolara bideak – Caminos a la escuela

**Argitaratzen du I Edita**

Nafarroako Gobernuko Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia

Dirección General de Paz, Convivencia y Derechos Humanos del Gobierno de Navarra

**Koordinazioa I Coordinación**

José María González – Irati Goikoetxea

**Argazkiak eta testua I Fotografías y texto**

Sipa Press - UNESCO

**Erakusketaren komisarioa I Comisario de la exposición**

Benoit Delplanque

L.G. I D.L.: NA 928-2019

**Diseinua eta maketazioa I Diseño y maquetación**

Horixe Diseño

**Inprimatzen du I Impresión**

Imprenta Zubillaga

**Sustapena eta banaketa I Promoción y distribución**

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra

Argazki-erakusketa hau 18 argazkilarien lanak biltzen dituen proiektu baten parte da. Proiektu horretan, mundu osoko zenbait haurrek egunero eskolara iristeko dituzten arazoak deskribatzen dira, batzuetan, arrisku pertsonal handiko egoerak, eta beti hezkuntzaren bidez bizimodu hobea lortuko duten itxaropena galdu gabe.

Gure haur gehienentzat eskolara joatea keinu txiki bat baino ez da, adibidez, ibilaldi labur bat egitea edo eskolako autobusera igotzea. Baino beste batzuentzat, gatazka armatuko lekuak, auzu oso arriskutsuak, mendiak, basamortuak, ibaiak edo ur izoztuak zeharkatzea esan nahi du. Sakrifizio irudikaezinak dira guretzat, baina haientzat merezi dute, oso ondo baitakite hezkuntza dute-la bizimodu hobea lortzeko irtaenbide bakarra. Haien jarrerek erakusten du, beren ausardiari eta adoreari esker, ikastea lortuko dutela nahiz eta sakon errrotutako hainbat oztopo gainditu beharko dituzten horretarako, hala nola pobrezia, genero-desberdintasuna, marginazio soziala, hiriguneetako segurtasunik eza, arrisku naturalak edo gatazka-egoerak.

2012an Sipa Press-eko hemezortzi kazetari grafikok bidaia bat egin zuten munduan zehar irudi-bilduma hunkigarri eta zirragarri bat egiteko. Erakusketa honek, zehazki, haietako hamar argazkilarien lana biltzen du hogeita hamar argazkiren bidez. Neska-mutil horiekin bidaiatzera, gonbidatzen du bisitaria erakusketak, haien erronkak partekatzen, eta gogoeta egitera kontratzeko gaur egun ere badirela hainbat egoera lazgarri neska-mutil askori hezkuntzarako giza eskubidea urratzen dietena. Hain zuen, hori da UNESCOren helburu nagusietako bat. Edonola ere, erakusketak erakusten du neska-mutil horiek gai direla oztopo geografikoak, ekonomikoak eta generokoak apurtzeko ikasi ahal izateko.

Erakusketa honetarako aukeratutako irudiek lurraldetako hamar istorio kontatzen dituzte: Alaska, Brasil, Burkina Faso, Ameriketako Estatu Batuak, Frantzia, Kenya, Libia, Nigeria eta Thailandia. Istorioak hiru kategoriatan banatzen dira: "Distanzia luzea", "Injurune zaila" eta "Diskriminazioa".

Esta exposición fotográfica es parte de un proyecto que recoge los trabajos de 18 fotoperiodistas que describen los desafíos a los que se enfrentan niñas y niños de todo el mundo para llegar cada día a sus escuelas, a veces con un gran riesgo personal y sin perder la esperanza de que a través de la educación alcanzarán una vida mejor.

Para la mayoría de nuestras niñas y niños ir a la escuela representa un pequeño gesto, como dar un corto paseo o subirse al autobús del colegio. Pero hay quien tiene que cruzar escenarios de conflictos armados, barriadas extremadamente peligrosas, montañas, desiertos, ríos o aguas heladas. Sacrificios inconcebibles que para ellas y ellos merecen la pena porque son conscientes de que acceder a la educación es su única salida hacia una vida mejor. Su actitud demuestra que, gracias a su determinación y tesón, podrán acceder a la educación a pesar de tener que sortear obstáculos tan arraigados como la pobreza, la desigualdad de género, la marginación social, la inseguridad en las zonas urbanas, los peligros naturales o las situaciones de conflicto.

En 2012 dieciocho periodistas gráficos de Sipa Press viajaron por el mundo para capturar una impactante y conmovedora colección de imágenes. Esta exposición, en concreto, recoge el trabajo de diez de ellos a través de treinta fotografías. La exposición invita al visitante a viajar con estas niñas y niños, compartiendo sus desafíos, y a reflexionar sobre las tremendas circunstancias que a día de hoy siguen impidiendo a muchas niñas y niños acceder al Derecho Humano a la Educación, una de las metas fundamentales de UNESCO. A pesar de todo la exposición demuestra que estas niñas y niños son capaces de romper barreras geográficas, económicas y de género para poder aprender.

Las imágenes cuentan diez historias ubicadas en Alaska, Brasil, Burkina Faso, Kenia, Estados Unidos, Libia, Francia, Nigeria y Tailandia. Las historias se dividen en tres categorías temáticas: "Larga distancia", "Entorno hostil" y "Discriminación".





## **Distantzia luzea**

Askotan, kokapen geografikoak hezkuntza-aukerak baldintzatzen ditu. Populazioen urruntasuna eta sakabanatzea areagotu egiten dira genero-desberdintasunagatik eta pobrezigatik. Herrialde behartsuetako landa-inguruneetan bizi diren haurrek arrisku handiagoa dute eskola oso goiz uzteko.

## **Larga distancia**



A menudo, la ubicación geográfica condiciona las oportunidades educativas. La lejanía y la dispersión de las poblaciones se ven intensificadas por la desigualdad de género y la pobreza. Las niñas y niños que habitan entornos rurales de países desfavorecidos tienen más probabilidades de abandonar la escuela a una edad temprana.



BRASIL

# SERTÃO

LEONARDO WEN

Brasilgo Sertão eskualdean, haurrak zaldiz, astozedo gurdiz joaten dira eskolara, eta azken berrogei urteetako lehorterik latzena pairatzen ari den basamortu-itxurako paisaia bat zeharkatzen dute. Oliveira familiak 75 minuto egin behar izaten ditu astoan (7 km) eskolara joateko.

En la región brasileña del Sertão, las niñas y los niños van a la escuela a caballo, en burro o en carromato, atravesando un paisaje desértico que actualmente padece su peor sequía desde hace más de cuatro décadas. El trayecto a la escuela de la familia Oliveira dura 75 minutos (7 km) en burro.





## THAILANDIA **MAE SOT**

 NICOLAS AXELROD

Thailandiako neskatoek, hezkuntzarik gabe, arrisku handia dute txikiak direla ezkontzera behartuak izateko, genero-indarkeria jasateko, pobrezian bizitzeko, eta batere aukerarik ez izateko beren familiarekin eta osasunarekin zerikusia duten kontuetan iritzia emateko. Mae Soteko txabola-auzo batean bizi da Wai Wai Htun, Myanmarreko beste familia batzuekin batera. Neskatoak 40 minuto egin behar ditu oinez egunero *rickshaw* motorduna hartzeko eskolara joateko, eta beste berrogei, etxera itzultzeko gero. Halakorik gabe ezingo litzateke eskolara iritsi.

Las niñas tailandesas sin educación tienen muchas probabilidades de ser obligadas a contraer matrimonio siendo pequeñas, sufrir violencia de género, vivir en la pobreza y carecer de voz y voto sobre sus hogares y su propia salud. Wai Wai Htun es una niña que vive en una barrio de chabolas de Mae Sot en compañía de otras familias birmanas. Cada día realiza a pie un viaje de ida y vuelta de 40 minutos para coger el *rickshaw* a motor, sin el que no podría desplazarse a la escuela.





## **Ingurune zaila**


Indarkeria itsua eta herritar zibilen aurkako erasoak dira XXI. mendearen hasierako gatazka biolentoen ezaugarri nagusietako bi. Neska-mutikoak eta eskolak gatazka armatuen lehen lerroan daude. Gatazkek suntsitako herrialdeetan, eskola-jazarpenak, bortxake-tak eta bestelako sexu-indarkeriek ondorio erabakigarriak izan dituzte hezkuntzan.

Horrez gainera, klimak eragindako hondamendiek ere izugarritzko eragina dute jendearen bizitzan, bai eta hezkuntza-sistemen azpiegituran eta funtzionamenduan ere.

## **Entorno hostil**

El uso indiscriminador de la fuerza y los ataques deliberados a la población civil son rasgos distintivos de los conflictos violentos del inicio del siglo XXI. Niñas y niños, y escuelas se encuentran en primera línea del conflicto armado. En países asolados por conflictos, el acoso escolar, la violación y otros tipos de violencia sexual han tenido consecuencias determinantes para la educación.

Además, los desastres causados por el clima tienen un impacto devastador no sólo en la vida de la gente, también en la infraestructura y el funcionamiento de los sistemas educativos.





NIGERIA

## KULUMIN JEJI

 RUTH McDOWALL

Nigerian bizi diren 3,5 milioi haur nomadetatik 450.000k bakarrik dute ikasketak egiteko aukera. Fulaniak herri nomada bat dira; Nigerian eta haren herrialde mugakideetan bizi dira, eta behizaintza dute lanbide. Gehienak analfabetoak dira. *Hardo Isa* eskola publikoa da, lehen hezkuntzakoa, Kulumin Jeji herrian dago, eta haur nomada horien hezkuntza-beharrei erantzuteko ardura du.

Urtaro lehorrean, klima oso beroa da, eta 40 °C-ra irits daiteke termometroa. Eskolara, asfaltatu gabeko errepide batetik eta lurrezko bideetatik joaten dira.

Tan sólo 450.000 de los 3,5 millones de niñas y niños nómadas que viven en Nigeria tienen acceso a la educación. Los fulani conforman una población nómada que se dedica al pastoreo en Nigeria y en los países limítrofes. La mayoría son analfabetos. *Hardo Isa* es una escuela primaria estatal situada en la localidad de Kulumin Jeji, destinada a cubrir las necesidades educativas de las niñas y niños nómadas.

Durante la estación seca el clima se vuelve muy caluroso, con el termómetro alcanzando los 40 °C. El viaje a la escuela transurre por una carretera sin asfaltar y caminos de tierra.





## AEB / EE.UU. **CALIFORNIA**

JESSICA CHOU

Jhai Menefee-k (13 urte) Los Angelesko hegoaldeko Sluson Avenue kalean itxaroten dio West Sideko *Ladera Heights* goi-klaseko auzoan dagoen eskolara eramango duen autobusari. Jhairen auzoko kale eta eskoletan, delinkuentzia da nagusi.

Ikasleek eskolara iristeko egin beharreko ibilbideek argi erakusten dute hango miseria- eta bortizkeria-egoera zaila, neurri handi batean banden jardueraren ondorio dena.

Jhai Menefee, de 13 años, espera cada día en Sluson Avenue, al sur de Los Ángeles, a que llegue el autobús que la llevará a su colegio de *Ladera Heights*, un barrio de clase alta en West Side. En su barrio la delincuencia domina las calles y las escuelas.

Los recorridos que hacen a la escuela ponen de manifiesto los retos y las condiciones de miseria y violencia urbana producto, en gran medida, de la actividad de las bandas.





## LIBIA **MISRATA**

OLIVIER JOBARD

Ikastetxeak eta, bereziki, haurtzaroa dira, oro har, gatzka armatuen ondorioak pairatzen lehenak. Eztanda egin gabeko minak eta armak etengabeko mehatxua dira haurrentzat, eskola bidean, batez ere.

Amal, Nawal eta Salem ahizpak bombardatutako etxeen ondotik igarotzen dira eskolara bidean; borrokek gogor eragin dioten ingurune bat zeharkatu behar dute hara iristeko. Salemek (9 urte) pilota baten antzeko objektu biribil bat aurkitu zuen etxe baten ostean. Harekin jolasten hasi zen, eztanda egin zuen arte. Eztandaren ondorioz, haren lehengusu Ali eta arreba nagusi Omasad hil ziren. Metrailak Nawa-len besoa zauritu zuen (12 urte).

La infancia en particular y los centros educativos en general son los primeros en sufrir las consecuencias de los conflictos armados. Minas y armamento sin explotar constituyen una amenaza permanente para las niñas y los niños, sobre todo en el camino a la escuela.

Las hermanas Amal, Nawal y Salem pasan junto a casas bombardeadas camino de la escuela, deben desplazarse a la escuela en un entorno profundamente marcado por los combates. Salem (9 años) encontró un objeto redondo parecido a una pelota detrás de una casa. Se puso a jugar con él hasta que explotó, matando a su primo Ali y su hermana mayor Omasad. La metralla hirió el brazo de Nawal (12 años).





## KENYA NAIROBI

 NICOLE SOBECKI

Afrikako txabola-esparruetan bigarren handiena da Kibera. Eskolara doazen haurrentzat ingurune bereziki latza da. Elizabeth Ateniok (6 urte) egunero bi ordu egiten ditu oinez *Kibera School for Girls* eskolara iristeko. Zaborrez eta giza gorotzez beteta dauzen kale estuetatik joaten da eskolara; izan ere, kale horietako estolderia gaizki eraikita dago, eta euria egiten duen bakoitzean gainezka egiten du. Neskato batek Kiberan ikasteak esan nahi du soldata handiagoa jasoko duela, GIB-infekzioa izateko hiru aldiz arrisku gutxiago izango duela eta seme-alaba gutxiago, osasuntsuagoak eta heldu izatera iristeko aukera handiagokoak izango dituela.

Considerado el segundo mayor asentamiento chabolista del continente africano, Kibera es un entorno particularmente hostil para las niñas y niños que asisten a la escuela. Todos los días, Elizabeth Atenio (6 años) camina dos horas hasta la *Kibera School for Girls*; recorre estrechas callejuelas donde se amontonan la basura y los excrementos humanos y con un alcantarillado mal construido que se desborda cada vez que llueve. El hecho de que una niña pueda educarse en Kibera implica que su sueldo será mayor, tendrá tres veces menos probabilidades de contraer VIH y tendrá menos hijas e hijos, más sanos y con más posibilidades de llegar a adultos.





## Diskriminazioa

Askotan, gutxiengo etnikoetako kideek aukera-berdintasuneko oztopo oso errotuak gainditu behar izaten dituzte. Beren hizkuntzan irakaskuntza lortzeko aukera galarazita daukate, eta estigmatizazio sozialaren mehatxupean bizi dira. Beraz, berehala hasten dira desabantailak izaten.

Bestalde, desgaitasuna da hezkuntza-marjinazioan gutxiengi ikusten den baina indar handiena duten faktoreetako bat.


Gainera, azpiegituren egoera eskasa ikastera iristeko beste arazo handi bat da.

## Discriminación

Con frecuencia los miembros de minorías étnicas han de afrontar obstáculos a la igualdad de oportunidades firmemente arraigados. Privados de la oportunidad de acceder a una enseñanza en su propia lengua y amenazados por la estigmatización social, se les coloca muy pronto en el camino hacia la inferioridad de condiciones.

Por otro lado, la discapacidad constituye uno de los factores menos visibles pero más poderosos de marginación educativa.

Además, la deficiencia de las infraestructuras es otro problema para el acceso a la educación.





## AEB / EE.UU. **ALASKA**

LOREN HOLMES

Kivalina herrixka itsas mailaren igoeraren eta higaduraren mehatxupean dago. Ez da erraza haurrek eskolara egin beharreko bidea. Herria zirkulu polar artikoaren gainetik dagoenez, gaua da etxetik ateratzen direnean, eta, eskola amaitu orduko, ia guztiz ilunduta dago berriz.

Halere, ez berotze globalak dakartzan arazoek, ez eta negu artiko latzek ere, ez diete galarazten eskolara joatea iñupiaten herri indigena estatubuarreko haurrei.

La aldea de Kivalina se encuentra amenazada por la subida del nivel del mar y la erosión. El trayecto a la escuela de sus niñas y niños no resulta fácil. Como el pueblo está situado por encima del Círculo Polar Ártico, es noche cerrada en el momento de partir y casi ha anochecido cuando terminan.

Sin embargo, ni los problemas derivados del calentamiento global ni los rigores de invierno ártico consiguen que las niñas y los niños del pueblo indígena norteamericano de los iñupiat dejen de asistir a la escuela.





## FRANTZIA/FRANCIA **ESSONNE**

© JEAN LARIVE

Ijitoen herria Europako gutxiengo etniko handiene-tako bat da: 8-12 milioi pertsonek osatzen dute, zebatespenen arabera. Haur ijitoen hezkuntza Europako gizartearren hezkuntza-erronka handienetako bat. Renaldo (6 urte) eta Fernando (8 urte) zorionekoak dira: hiru urte daramatzate eskolara joaten.

Con una población estimada de entre 8 y 12 millones de personas, el pueblo gitano constituye una de las mayores minorías étnicas europeas. La formación de las niñas y niños gitanos representa uno de los retos educativos más importantes para la sociedad europea. Escolarizados desde hace tres años, Renaldo (6 años) y Fernando (8 años) se encuentran entre los afortunados.





## FRANTZIA/FRANCIA MONTPELLIER

© VINCENT DAMOURETTE

Pascaline (15 urte) Lodèvè-n bizi da, Frantzian. Rasmussenen sindromea du, gaixotasun autoimmune bat, eta hari kontra egiteko, ebakuntza egin behar izan zioten bederatzi urte zituela, eta garuneko hemisferio bat kendu. Erabateko hemiplegia garai batez pairatu eta gero, hitz egiteko gaitasuna berreskuratu du, eta mugitzekoa hobetu. Montpelliereko Les Cazes kolegioan ikasten du, etxetik 60 km-ra.

Pascaline (15 años) vive en Lodèvè (Francia). En su lucha contra el síndrome de Rasmussen, una enfermedad autoinmune, Pascaline tuvo que pasar por el quirófano, con sólo 9 años, para extirparle uno de los hemisferios del cerebro. Tras un periodo de hemiplejia total consiguió recuperar el habla y mejorar la capacidad de movimiento. Estudia en el Collège Les Cazes de Montpellier, situado a 60 km de su casa.





## BURKINA FASO DJIBO

 HOLLY PICKETT

Mentaoko iheslari-esparrua Maliko mugan dago, eta Malitik etorritako 6.000 errefuxiatu bizi dira han. Mentaoko iheslari-esparruko eskolak Plan International GKEak sortu zituen, eta 2012ko azaroaren erditik daude martxan. Esparrutik gertuen dagoen bigarren hezkuntzako eskola Djibon dago, 10 kilómetrosra. Distantzia horrek zaildu egiten du iheslariak hara joan ahal izatea, iheslari gehienek ez baitute garraiobiderik.

El campo de personas refugiadas de Mentao, en la frontera con Mali, alberga unas 6.000 personas refugiadas malienses. Creadas por la ONG Plan International, las escuelas del campo de personas refugiadas de Mentao comenzaron a funcionar a mediados de noviembre de 2012. La escuela secundaria más próxima al campo se encuentra en Djibo, a 10 kilómetros, una distancia que dificulta al máximo la asistencia a clase, ya que la mayor parte de las personas refugiadas carece de medio de transporte.



